

Parte-hartzea, oso apala

Lurrazpiko zaborrontzien sistema kentzearen aldeko iritziak gailendu dira apirilaren 25eko herri-galdeketa / 7

Olatua goi-goian dago

Apirilean, hilaren 28ra arte, 222 kutsatze erregistratu dituzte Lasarte-Orian; eguneko, ia zortzi / 5

Lanbide heziketa
euskaraz egitera
animatu dute Lasarte-
Oriako Udalak eta
EAGI ikastetxeak / 3

Caja Rural taldeko
filialeko talde
teknikoko kide
Iñigo Altunarekin
solasean / 10



BEGIRALE LAN-POLTSA (Udako Txoko eta udalekuetarako)



18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 9a baino lehen.

BALORATUKO DIRA: -Begirale edo zuzendari titulua. - EGA edo baliokidea den agiria. - Ikasketak. - Lan esperientzia.

BEHARREZKOAK: -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: <https://labur.eus/ttakunbegiraleak2021>
begiraleak@ttakun.eus | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943 37 14 48



Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK

44€

2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK

97€

5 m² / BEZa barne

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Mugikortasun-eredua aldatzeko bidean

Hiri-mugikortasunari buruzko azterketa egiten ari da Lasarte-Oriako Udala. Besteak beste, herritarren iritzia jaso nahi du, eta horretarako, parte-hartze prozesua ireki du; maiatzaren 14ra arte egin ahalko dira ekarpenak, ostiralarekin

Txintxarri

Hiri Mugikortasunerako Jasangarritasun Plana -aurrerantzean, HMJP- egiteko prozesua aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak. Agustin Valdivia alkatea, Parte-hartze zinegotzi Nagore Duranek eta udal-teknikari Itziar Gurrutzagak eman dituzte egitasmo horren zertzeladak. Azpimarratu dute "eraginkorra" izango dela tresna hori Lasarte-Oriako mugikortasun-eredua moldatzeko bidean. Aurreratu dute "udalerrriaren argazkia" egiten ari direla orain; bestela esanda, gaur egungo egoera aztertzen.

Herriko mugikortasun-eredua aldatu egin behar dutela uste dute udal-ordezkariek, besteak beste, gaur egungoak "dependentzia handiegia" duelako autoekiko. "Asko erabiltzen dugu, espazio eta energia asko kontsumitzen dugu, eta horrek eragin negatiboa du ingurumenean eta hiri-kalitatean". Zehaztu dute Lasarte-Oriaren hedapenak ekarri duela



Ezker-eskuin: Nagore Duran, Agustin Valdivia eta Itziar Gurrutzaga. TXINTXARRI

erabilera bakarrera bideratutako egituren areagotzea, eta haien arteko distantziak handiagoak izatea. "Auto pribatuekiko dugun beharra handitu du horrek".

HMJP planaren "xede nagusiak" hauek dira: "irisgarritasuna

hobetzea" eta "ibilgailu pribatuen eragin negatiboak gutxitzea". Horretarako, Udalaren asmoak dira garraio-eredu eraginkorago bat eratzea; gizarte-integrazioa handitu eta irisgarritasun unibertsalagoa ematea; herritarren

bizi-kalitatea hobetzea eta haien osasun-baldintzak arriskuan ez jartzea; joan-etorriak seguruagoak izatea; eta mugikortasun-eredua iraunkorragoa izatea. "Genero-ikuspegia txertatzea ere funtsezkoa izango da".

Herritarren parte-hartzea

Aipatu helburu horiek lortzeko bidean "lasarteoriatar guztien inplikazioa eta kontzientziak" beharrezkoak direla azpimarratu dute Duranek, Valdiviak eta Gurrutzagak. HMJP plana lehen fasean dago orain, eta horren barruan, parte-hartze prozesu bat abiatu du Udalak, herritarrek gaur egungo mugikortasunari buruz pentsatzen dutena jasotze aldera. Apirilaren 30ean hasi da, ostiralez, eta bi aste barru bukatuko da, maiatzaren 14an. Lasarte-Oriako elkarten iritzia ere jaso nahi dituztenez, galdetegi bana bidaliko zaie.

Prozesuan parte hartu nahi dutenek hainbat modutan egin dezakete hori. Adibidez, www.lasarte-oria.eus web-orritik deskargatu dezakete galdetegiak, bete, eta udaletxeko erregistroan entregatu. Horretarako, 943 37 60 55 telefonoan hitzordua hartu beharko dute. Tramite hori presentzialki egin nahi edo ezin duten lasarteoriatarrek aukera dute telematikoki egiteko: B@kq, Izenpe, NAN elektronikoa edo antzeko identifikazio elektronikoren bat erabili, eta Udalaren atari digitalera igo

beharko dute galdetegiak. Parte-hartze prozesuan modu zuzenago baten bidez egin nahi dutenek, esteka honetan aurkituko dute dokumentua: <https://forms.gle/5dKuyNkH19VhPw3H9>.

Jasotako informazioarekin, HMJP plana gauzatzen ari den lantaldeak behin-behineko txosten bat aurkeztu beharko du. Hori egiten duenean, lasarteoriatarrei berri emango zaie, eta beste parte-hartze prozesu bat abiatuko du Udalak orduan, behin betiko plana erredaktatu aurretik.

Hiru faseko prozesu-teknikoa

Esan bezala, HMJP plana 1. fasean dago orain, analisia eta diagnostia egitekoarenean. Horretan egingo dira informazio-bilketa, eskaintza eta prestakuntzaren eskariaren azterketa, mugikortasun-ereduaren modelizazioa eta gaur egungo eta etorkizuneko egoeren diagnostiko parte-hartzailea, indarrean dagoen sistemaren indarguneak eta ahulguneak atzemateko. Bigarren fasea ekintza-plana izango da, eta hirugarrena, berriz, tramitazioa. Lasarte-Oriako udalbatzarrak onartu beharko du behin betiko dokumentua.

GAUR EGUNGO SISTEMAK "DEPENDENTZIA HANDIEGIA" DU AUTOEKIKO

Landaberri ikastolako aldapa konpontzeko lanak, amaituta

Obrek hiru hilabete iraun dute, eta Construcciones Moyua enpresak gauzatu ditu; aurrekontua 292.727 eurokoa izan da

Txintxarri

Sarbidea itxi zenetik -2019ko irailean- urte eta erdi baino gehiagora, ikasleak Landaberrira garraiatzen dituzten autobusak ikastetxe atariraino igotzen hasi dira berriro, ikastolako aldapa sendotzeko obrak amaituta baitaude. 2021eko urtarril amaieran ekin zien konponketa-lanei Construcciones Moyua enpresak; aurrekontua 294.727 eurokoa izan da. Hiru hilabetez jardutea aurreikusituz, eta bete dute ezarritako epea. Maldan ez ezik, beste esku-

hartze batzuk egin ditu Lasarte-Oriako Udalak. Esate baterako, ikastolara sartzeko bideak bermatzeko lanak egin dira: horretarako, 33.852 euroko kreditu-aldaketa bat onartu zuen udal-korporazioak. Agustin Valdivia alkatea eta Nagore Duran zinegotzia joan den astean gainbegiratu zituzten obrak.

Luze jo duen arazoa

Landaberri eraikinaren mantenua Lasarte-Oriako Udalar dagokion arren, lur-eremua Donostiako Udalarena da. 2019ko irailean



Apirilaren 29tik aurrera hasi dira autobusak atariraino igotzen berriro. TXINTXARRI

aldapa itxi zenetik, igaro zituzten hilabete batzuk gatazkan, arazoa konpontzearen arazoa bata besteari egotzen. Udal-korporazioak urte horretako abenduko ohiko udalbatzarrean finkatu zituen konponketa-lanen

oinarriak. Bi hilabete beranduago lehertu zen pandemiak ere izan zuen eragina obrak atzeratzean. Udalbatzarrak apiril amaieran onartu zuen kreditu-aldaketa egitea eta diruaren zati bat obra horietara bideratzea.

Asfaltatze-lanak egingo ditu Lasarte-Oriako Udalak

Brunet poligonoa, Kale Nagusian zehar dauden zenbait bazterbide eta Tellerigainako oinezko pasabidea berrasfaltatuko ditu Lasarte-Oriako Udalak. Lan horiek Campezo Obras y Servicios SA enpresari adjudikatu dizkio: aurrekontua 194.957,71 eurokoa izango da.

Datozen urteetan jarraituko dute gisa horretako eta bestelako inbertsioak egiten, martxo amaieran onartu baitzuen Udalak 2021-2023 urteetarako inbertsio-plan estrategikoa. Orduan jakinarazi zuten, guztira 32.411.644 euro bideratuko dituzte esku-hartzeak egitera.

Lanbide Heziketa euskaraz egiteko deia

Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik eta EAGI Eraikin Adimenduenen Garapen Iraunkorreko Lanbide Heziketako zuzendari Lidia Alcerrekak ikasleak D ereduan matrikulatzera animatu dituzte, lan-etorkizunean aukera gehiago izan ditzaten

Txintxarri

Urteko sasoi honetan gazte askok erabakitzen dute zein lanbide ziklotan izena eman. Ez da erabaki erraza izaten, eta Buruntzaldeako Udalek laguntza eskaintzen diete gazte horiei. Horrela azaldu du Jon Antxordoki Euskara Zerbitzuko buruak, eta D ereduan euskaraz egitera animatu nahi ditu ikasleak.

Jakinarazi du Buruntzaldeko Udalak eta ikastetxeak konpromisoak ari direla lantzen, ikasleak lantokiko prestakuntza egitera doazen enpresetan praktikaldiak ere euskaraz egin ditzaten. Enpresek "begi onez" hartu dute egitasmoa, euskaraz trebatutako langileek "balio erantsia" ematen diotelako enpresaren jardunari. Horrekin batera, azaldu dute eragina izaten duela gainerako langileen hizkuntza erabilera.

Gainera, erdi-mailako heziketa-zikloa euskaraz egiten dutenek euskarazko B1 titulua baliokidetuta izango dutela ere jakinarazi dute, eta goi-mailakoa egiten dutenek, berriz, B2a, administrazioko 2. hizkuntza-eskakizunaren edo profilararen parekoa.

Lidia Alcerrekak, EAGI Eraikin Adimenduenen Garapen Iraunkorreko Lanbide Heziketa zentroko zuzendariak, adierazi



EAGI ikastetxeko Lidia Alcerrekak eta Jon Antxordoki, prentsaurrean. TXINTXARRI

du Lasarte-Orian ere badagoela Heziketa Zikloak ikasteko aukera. Zehazki, beraien ikastetxean eraikuntzarekin lotutako erdi-mailako Eraikuntzako Teknikaria eta Barruko Obrak, Dekorazioa eta Birgaitzeko Teknikaria zikloak eta goi-mailako ziklo Eraikuntza-Obrak Antolatze eta Kontrolatzeko Goi-Mailako Teknikaria zikloa aurkeztu ditu. Azaldu du horietan matrikulatu nahi duten ikasleei D, B zein A ereduan matrikulatzeko aukera ematen zaiela, gaineratuz, aukerak dauden guztietan

eskolak euskaraz ematen dituztela, irakasle gehien gehienak gaituta daudelako.

Interesa dutenek <https://eagi.eus> estekan jaso dezakete informazio gehiago. Ikastetxea bisitatzea joateko gonbita ere luzatu du. Honako helbidean dago kokatuta: Donostia Etorbidea, 5.

Lanbide Heziketako ikastetxe publiko zein pribatuen inguruko informazioa eskuratu daiteke helbide hauetan: www.ikaslangipuzkoa.eus/eu edo www.hetel.eus.



Kulturari eta bertsolaritzari leiho bat zabaltzen

Lerro hauen azpikoaren gisako bertsoak irakurri ahal izango dituzue datozen hilabeteetan, herriko Earra! bertso eskolan aurtengo ikasturtean errimekin, doinuekin, hitzekin eta euskararekin lanean eta jolasean ari diren ikasle finen eskutik. Eskolak eta TXINTXARRI-k martxan jarritako egitasmo honen helburua da kulturari leiho bat zabaltzea.

Apirileko bertsoa

Doinua: *Habanera*

Urtaro denen artean
Zein ote dugu hobea?
Udazkeneko paisaian
Zuhaitz historik gabea,
Neguan zuritasuna
Gure kaleen jabea
Udaberriko euritan
Ernaltzen zaigu lorea.
Udarak guretzat xarma
Berezi bat du ordea
Egunek dute izozki
Goxoaren zaporea
Nahiz ta orain ikastea
Dugun berezko legea
Egun gris hauek utzita
Heltzeaz da kolorea.

Taldeakideak : Añes, Xuban, Nora, Oihane, Nikola eta Aitana.

PERKUSIO IKASTAROA

Odei Astibiaren gidaritzapean

Maiatzaren 8an 11:00etatik 13:00etara

16 urtetik gorakoentzat

Gorputz perkusioa, darbuka, djembea eta instrumentu brasildarrak landuko dira



Izena emateko: 695 78 53 89 kultura@ttakun.eus

8 € bazkideak | 10 € ez bazkideak

Tontorrez tontor, presoan etxeratzea aldarrikatuz

Sare Herritarrek deituta, Euskal Herriko 650 mendi ezagun igoko dira maiatzaren 8an. Lasarteoriatarrek bat egin dute 'Izan Bidea' dinamikarekin, eta Benedika eta Buruntzara joango direla iragarri dute, euskal presoan etxeratzea aldarrikatzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Sarek, Tximistarreta parkean, Buruntzara atzean hartuta, iragarri du maiatzaren 8an Benedika eta Buruntzara joango direla, *Izan Bidea* dinamikarekin bat eginik. Presoan etxeratzea aldarrikatuko du, eta, helburu hori lortzeko, urrutze-politika bertan behera uztea eta gradu-progresioa preso guztiei aplikatzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute. Euskal Herri mailan 650 gailur igoko dituzte. Urriaren 3an egin asmo zuten ekitaldi hori, baina atzeratu egin behar izan zuten, eguraldi txarra zela eta.

Orain, "are gogotsuago eta indartsuago" ekingo diotela azpimarratu dute agerraldian. Nabarmendu dute ez daudela etxean geratzeko prest, eta gero eta gehiago direla ibiltarien sare hori osatzen dutenak, kilometroak egiten ari direnak. Denak helburu bera lortzeko bidean ari direla urratsak ematen: "Euskal presoan etxeratzea eta bizikidetzara eta bakea lortzeko bidean aurrera egitea".

Horrela, lasarteoriatarrei dei egin diete datorren maiatzaren 8ko ekimenarekin bat egin eta ibilaldira animatu daitezten. 9:30ean abiatuko dira Okendo plazatik, eta, ordu bete



Benedikara eta Buruntzara joango dira lasarteoriatarrek, maiatzaren 8an. TXINTXARRI

beranduago, 10:30ean, argazkia aterako dute Benedikan. Handik Azkorterara joango dira, 11:00etan, eta 11:30ean Buruntzara iritsi, argazkia, irrintzia eta kantua egingo dituzte.

Herritarren ahotsa

Mendian ibiltzea gustuko duten zenbait herritar ere joan dira prentsaurrekora; besteak beste, Alex Tetuan. Makina bat tontor igoak ditu lasarteoriatarra, azaldu du mendian hasi zen garaian, "beteranoei esker" ikasi zuela mendiak ezagutzen, erritmoak hartzen, eta abar. Gaineratu du,

mendian ibiltzearen poderioz, eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren zenbait balore barneratzen joan zirela. Horien adibideak ere jarri ditu: elkartasuna, esfortzua eta adiskidetasuna, besteak beste.

Mendira joatearen eta aske sentitzearen arteko lotura ere egin du; sinonimoak baitira herritarrentzat mendia eta askatasuna. Maiatzaren 8ko ekimena baliatu nahi du, askatasuna behar dutenei, elkartasuna adierazteko. *Ikusi mendizaleak* abestuz eman diote amaiera agerraldiari.

Elkartasuna, Lekarozera

Zenbait herritarrek bat egin dute Sorgin Jaiak, Ernai Lasarte-Oria eta Elebeltz Topagunea eragileek egindako deiarekin. Okendo plazan elkartu dira Lekarozko (Nafarroa) Aroztegiko proiektua geldiarazteko ahaleginetan dabilen herritarrei elkartasuna adierazteko. Udalerri hartan gauzatu nahi duten egitasmoaren -228 etxebizitza, lau izarreko hotel bat eta golf zelai bat- aurka kanpaldi mugagabea egiten ari dira.



TXINTXARRI



Lasarte-Oriako ostalariak Okendo egindako protesta-ekitaldian. TXINTXARRI

Kriminalizazioaren aurka, kalera irten dira, protestara, ostalariak

Erruduntzat ez erabiltzeko eta baldintza duinetan lan egiten uzteko aldarria egin dute herriko ostalariak

Txintxarri

Herriko hainbat ostalari elkartu dira apirilaren 24 arratsaldean, bezperan Donostian egindako protesta ekintzan poliziak ostalari batzuk jipoitu eta atxilotu zituela gaitzesteko. "Langileak gara, ez gaizkileak" aldarrikatu dute Okendo plazan egon diren hogeitun minutuetan. Ondoren, adierazpen adostua egin dute, elebitan.

2KN tabernako Aitor Salegik euskaraz irakurri du idatzia. Bertan esandakoaren arabera, ostiralean aldundiaren egoitza aurrean gertatutakoari "onartu ezinezkoa" deritzote. Jasaten ari diren kriminalizazioarekin batera,

salatu dituzte poliziaren jarrera, EAEko nahiz Espainiako gobernuen "pasibotasuna" eta ezarri dizkieten neurriak.

Hori guztia euren negozioko itxi eta familia askoren hondamena eragiten ari da. Gogoratu dutenez, urtebete daramate egoera honi ahal bezala aurre egiten eta etorkizunari dagokionez ez dira batere baikor.


Beste behin berretsi dute ostalaritza ez dela "birusa", ezta "gizartearen aurrean hori guztia justifikatzeko aitzakia" ere; eta horren aurrean eskaera egin dute: dirulaguntzak, erruduntzat ez erabiltzea eta baldintza duinetan lan egiten uztea.

Bost atxilotuetako bat, herritarra

Ekintza "sinbolikoa eta baketsua" izatea nahi zuten iragan ostiralean Donostiako Foru Aldundira protesta egitera joandako ostalariak. Mobilizazioa batutako zenbait ostalari kateatu egin ziren, bost minutuko protesta bat egiteko eta ostalaritzaren sektoreak bizi duen "egoera itogarria" salatzen. Baina egoera ez zen aurrekusi bezala joan.

Aldundiko segurtasun-langileak bultzaka hasi zitzaizkiela azaldu du Elena Ginea lasarteoriatarrek, Aurreku tabernaren jabeak, Irutxuloko Hitzan egindako elkarrizketa batean. "Egoera kritikoa" izan zela adierazi du, zenbait unetan "ia arnasek gabe" geratu zirela. Egoera horren aurrean, ostalarien taldeko kide bat giltzarapoa askatzeko giltzarekin gerturatu zela, baina ez ziotela utzi. Horrela, kateak moztu eta eraikin barrura eraman zituzten.

Aldundian identifikatu eta atxilotuta zeudela jakinarazi zieten. Antiguako komisaldegira eraman, eta bertan jasandako "tratu iraingarria" salatu du: "Arropa kentzeko eskatu ziguten berehala; bost orduz eduki ninduten kulerotan, komisaldegian". Desordena publikoaren aurka egitea egotzi diete, baina, momentuz, zigorrik ez.



Apirilaren 15etik 28ra 126 positibo detektatu dituzte Lasarte-Orian. TXINTXARRI/FLORISH

Apirila, intzidentzia handikoenen artean

Lasarte-Orian 222 kutsatze erregistratu dituzte apirilaren 28ra arte; 2020ko azaroan izan ezik (275 kasu), gainontzeko guztietan gutxiago diagnostikatu dituzte. Gure herriaz gain, eskualdeko gainontzeko udalerrri guztiak ere eremu gorrian sartuta daude gaur-gaurkoz

Txintxarri

Apiril hasieran altuera nabarmena hartu zuen koronabirusaren olatuak. Hilabetea amaitzear da, eta goi-goian jarraitzen du. Hilaren 28ra arteko datuak eskuetan –horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak edizioa itxi aurretik–, 222 kutsatze erregistratu dira gure herrian; batez beste, ia zortzi eguneko (7,92). Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila COVID-19agatik emandako positiboak neurtzen hasi zenetik, 2020ko martxotik, intzidentzia gehieneko bigarren hilabetea izaten ari da aurtengo apirila: iazko azaroan detektatu ziren orain baino kasu gehiago, 275 guztira. Gainontzeko guztietan,

gutxiago. Lau hilabetetan zenbatu dira 200 kutsatze baino gehiago: 2020ko urrian eta azaroan (218 eta 275, hurrenez hurren), eta 2021eko urtarrilean eta apirilean (215 eta 222, hilaren 28ra arte).

Eremu gorritik atera ezinik

Lasarte-Oria apirilaren 9an sartu zen eremu gorrian, ostiralarekin. Egun batzuk beranduago, 12an, astelehenez, 400ekoa baino intzidentzia-tasa metatu handiagoa duten udalerrien zerrenda gaurkotu zuen, gure herria barne. Neurri are murriztaileagoak betetzen hasi behar izan genuen 13tik aurrera: besteak beste, udalerrri-mailako itxiera –herri mugakideetara

joan daiteke erosketak egitera eta aire zabalean kirola egitera– eta ostalaritza-establezimenduek lokal barruan zerbitzua eskaintzeko ordutegiak murriztu beharra, 6:30etik 9:30era eta 13:00etatik 16:30era. Koronabirusak oldartuta jarraitzen duela ikusita, ez dirudi berehalakoan aterako denik Lasarte-Oria eremu gorritik. Apirilaren 28an, intzidentzia-tasa metatua 661,59koa izan da.

Eskualdeko gainontzeko herriek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil) ere gune gorrian egoten jarraitzen dute, Andoain 400eko mugatik oso gertu baitago ere. Gipuzkoa ere egoera horretan dago.

Babes ofizialeko etxebizitzetako 52 familia, kaleratze-arriskuan

Martxoaren 15etik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolarekin "urgentziazko bilera" noiz egingo zain daude

Txintxarri

Lasarte-Oriako Zapategi kaleko 1, 3 eta 5 portaletan bizi diren 52 familia abuztuan etxegabetuak izateko arriskuan daudela salatu dute Stop Desahucios, Alokairu eta Inquilinos Azora plataformek.

Etxebizitzen jabeak, PBP Gestión de Arrendamientos y Alquileres SLk, familiei jakinarazi die edo kontratu berri bat sinatzen dutela, edo abuztuaren 31n giltzak eman eta joan egin behar dutela. Gaur egun 350 eta 500 euro arteko

alokairuak pagatzen dituzte; enpresak 700 eta 900 artera igo nahi ditu, hoguei urteko babes-aldia amaitzear dela argudiatuta. Kopuru horiek lau urteko epean igoko dituzte, progresiboki.

Plataformek "konponbideak" eskatu dizkiote Eusko Jaurlaritzari, eta bilera bat Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari. "Martxoaren 15ean egin genuen eskaera, eta atzeratzen ari da". Lasarte-Oriako Udalarri galdegin diote bitartekaritza-lana egiteko, "martxoaren 2ko bileran adostu bezala".



Herritar ugari gerturatu ziren Andatza plazako azokara apirilaren 24an. TXINTXARRI

Udaberriko koloreak eta giroa Andatza plazako azokan

Etxe barruko edo kanpoko txokoren bat apaintzeko erosketak egin dituzte merkatura joan diren herritarrek

Txintxarri

Urtaroko eguraldiari eutsi zion larunbat goizak eta herritar ugari bertaratu zen Lore eta Landare Azoka berezira. Etxe barruko edo kanpoko txokoren bat apaintzeko erosketa eginda edo bertan zegoena ikusita, pozik joan ziren.

Zuhaiskak, landare aromatikoak, cactusak, bonsaiak, kanpokalde nahiz barnealdeko landareak... Eskaintza zabala izan dute aukeran lasarteoriarrek. Andatza plazan zazpi landare haztegi jarri dute postua, kolore eta ukitu berezia jarriz zabalgunean. Haiekin batera, Behemendi elkarteak zenbait

kidek ere parte hartu dute kosmetika naturaleko artisau produktuak, haziak eta belarrak edota apaingarriak salduz.

Eguerdin partean, postuetan jendea batetik bestera zebilen. COVID-19a tarteko, neurri bereziak hartu dituzte, pilaketak saihesteko tartea utziz saltzaileen artean. Edonola, lasai begiratu, galdetu edo ukitzeko aukera izan dute balizko erosleek. Artisautza postuetan, adibidez, gel hidroalkoholikoa eskura zuten, lore prentsatuekin egindako apaingarri edo bitxiaren bat ukitu nahi zutenentzat.



TXINTXARRI

Txirrindak konpontzen ikasten

Ttakun Kultur Elkarrekin antolatutako bizikleta konponketa ikastaroko lehen saioa egin dute Oriarte-Landaberriko jolastokian. Gorka Segurola herritarrek oinarriko mantenua egiteko aholkuak eman eta arazo txikiak nola konpondu irakatsi die parte hartu duten bederatzi lagunei. Entzundakoa ere landu ahal izan dute, irakasleak ekarritako materiala edota norberaren bizikleta baliatuta.

Musikaren salbazioa ekarri du Gatibuk

Emanaldi akustikoa eskaini du talde gernikarrak Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzan. 'Musikak salbatuko gaitu' azken diskoko abestiak uzartu ditu hogei urteko ibilbidean klasiko bihurtu diren beste zenbaitekin: 'Urepel', 'Mila doinu aidien', 'Euritan dantzan'...

Txintxarri

Gatibu talde gernikarrak bi hamarkada daramatza ikus-entzuleak kantuan eta dantzan jartzen, han eta hemen. COVID-19aren ondorioz, bizkaitarrek formatua aldatzea erabaki dute, eta euren errepertorioa emanaldi "lasaiago" batzuen bitartez erakusten segitzen dute, kontzertu akustikoak eskaintzen. Horietako bat izan zen apirilaren 23an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean taularatu zutena. Ia sei urteren ondoren itzuli zen Gatibu gure herrira -2015eko San Pedro jaietan aritu ziren azkeneko, ekainaren 27tik

28rako gauean-. Zenbat aldatu diren gauzak ordutik.

"Lasai" hasi zuten kontzertua, *Musikak salbatuko gaitu* azken diskoko bi kantak amaituta Gaizka Salazar bateria jotzaileak esan bezala. Emanaldiaren aurretik TXINTXARRI-ri adierazi bezala, kontzertu berezia izan zen, giro intimoagoarekin. Musikariek elkarren artean edo publikoari hitz egin zioten hainbatetan, eta erritmoa ohikoa baino mantsoagoa bazen ere, inor ez zen aspertu. Guztiz kontrakoa.

Bi hamarkadako ibilbidean klasiko bilakatu diren kantan ez ziren falta izan, Urepel kasu, eta

akustikoan lehenegoz jo zituzten beste zenbait. Liburuaren Eguna zela baliatuta, Euskal Herrian den Joseba Sarrionandiari kanta bat eskaini zioten; emanaldiak aurrera egin eta Ihes abesteko txanda heltzean, ordea, gitarra jotzaile Haimar Arejitak hura aproposagoa zela onartu zuen. "Berarentzat" esanez ebatzi zuten kontua Alex Sarduik.

Abeslariari kosta egin zitzaion batzuetan eserita aritzea, dantza egiteari ez baitzion uko egin. Askatasuna aldarrikatu zuen behin baino gehiagotan eta pandemiak zapuztutako bi hamarkaden ospakizuna egiteko nahia ere adierazi zuten.



Ordubete pasatxoko emanaldi akustikoa eskaini du talde bizkaitarrak. TXINTXARRI



Alex Sardui abeslariari kosta egin zitzaion batzuetan eserita jardutea. TXINTXARRI



Kukukaren 6. Antzerki Topaketako bideo-txapelketako sarituak, pozik, Manuel Lekuona kultur etxeko atarian. TXINTXARRI

Bideogintzaren alorrean lehen urratsak egiten

Nahia eta Miren Alkorta ahizpek egindako 'Tablet batengatik' lanak irabazi du Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak antolatutako 1. bideo-txapelketa. 6. Antzerki Topaketaren barruan egindako ekintza izan da, eta antolatzaileek hiru ikus-entzunezko jaso dituzte

Txintxarri

Hasierak ez dira errazak izaten eta horren jakitun, pozik zeuden Kukukako arduradunak parte hartzearekin. Martxoaren 27an ospatzen den Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren inguruko ekimenen artean, aurtun estreinakoz bideo-txapelketa antolatu dute eta hiru lan jaso dituzte: *Tablet batengatik*, *Beti elkarrekin* eta *Spook Scary Skeletons*. "Ez genuen espero, gutxi ematen du; baina asko da", aitortu du Puri Fadriquek, "pixkanaka-pixkanaka egiten dira gauzak".

Partaide guztiei aitortza egin diete eguerdiko ekitaldi xumean. Diploma eta Kukukaren kamiseta bana jaso dute opari, "Kukuka hasi zenean egin genituen lehen kamisetak dira", ohartarazi die Fadriquek eman dietenaren balioa nabarmenduz. Irabazle izan diren Alkorta ahizpek, gainera, maiatzeko haurren antzerkirako lau sarrera ere eskuratu dituzte.

Kukukak ospakizunekin jarraitu du asteon, Dantzaren Nazioarteko Eguna izan baita apirilaren 29a, osteguna. Emanaldiak eskaini

dituzte Amaia Gonzalez Caballero akademiak, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Semblante Andaluzek. Maiatzaren 7ko aldizkarian argitaratuko ditugu ekitaldiko argazkiak.

Aurkeztu diren lanak

- **'Tablet batengatik'**. LH4 mailako Nahia eta Miren Alkorta ahizpek, aitaren laguntzarekin, *western*-etan inspiratutako lana egin dute.
- **'Beti elkarrekin'**. Adiskidetasunaren garrantziari buruzko bideoa egin dute Nora Gallardo, Iris Lava, Aiora Toquero, Ander Prado, Erika Otermin eta Leire Luna DBH2ko ikasleek.
- **'Spook scary skeletons'**. Gorputz-espresioan oinarritutako bideoa egin du LH2ko ikasle Haritz Altunak.



Apirilaren 25eko herri-galdeketa 1.258 lasarteoriatarrek eman dute bozka, deituta zeudenen %7,88k. TXINTXARRI

Parte-hartzea txikia izan da

Apirilaren 25eko herri-galdeketa 1.258 lasarteoriatarrek parte hartu dute, hautetsontzietara joatera deituta egon direnen %7,88. Iritzia eman duten gehienek lurrazpiko zaborrontzien sistema kentzearen alde egin dute. Udala: "Egoerari erantzun azkarra eman behar zaio"

Txintxarri

Zer egin behar du Udalak egungo lurpeko edukiontziekin? Galdera horri Bai edo Ez erantzutera deituta zeuden 15.965 herritar, baina gehienak ez ziren bertaratu hautetsontzietara apirilaren 25ean, igandearekin. Lasarte-Oriako Udalaren datuen arabera, 1.258 herritarrek eman dute iritzia kontsulta horretan; boto-emaitzen %7,78 izan dira. Bozkatu duten pertsonetatik 702 lurrazpiko zaborrontziak kentzearen alde agertu dira (hautesleen %55,8), eta 552 mantentzearen alde (%43,9). Botoetako hiru baliogabeak izan dira, eta zuria bat.

Lurperatutako edukiontzien inguruko galdeketa abian izan zen goizeko hamarretatik. Lehen orduetan ez ziren herritar gehiegi animatu beraien iritzia ematera, bildutako datuek argi utzi zuten moduan. Eguerdia arte, %1,9ak

(303 iritzi) besterik ez zuen parte hartu. Horietako bi Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia eta David Mateos zinegotzia izan ziren.

14:00etan itxi zituzten mahaiak eta 16:00etan ekin zioten berriro galdeketa. 18:00etako eguneraketan gora egin zuen pixka bat parte-hartzeak, %6,26ra (999 iritzi). 20:00etan, kontsulta amaitu zenean, guztira, 1.258 izan ziren.


Irakurketa desberdinak

Lasarte-Oriako Udalak onartu du kontsultaren datuak "oso apalak" izan direla. Hala ere, balorazio "positiboa" egin du apirilaren 25eko galdeketa buruz. "Herritar gehiagok ez bozkatu izanaren zergatiak arretaz aztertu behar ditugu, baina orain arte gauzatu ditugun parte-hartze prozesuetatik jendetsuena izan da". Herriko hiri-hondakinen bilketaren egoerari "erantzun azkarra" eman

behar zaiola adierazi du Agustin Valdivia alkateak: "Ahalik eta lasterren proposatuko dugu konponbidea, eta oso kontuan izango dugu kontsultaren emaitza: zaborrontzien arazoa konpontzeaz gain, gaur egun egiten dugun gaikako bilketa handitzea bermatuko duen sistema bat ezarri behar dugu".


Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformak ere parte-hartzean jarri du fokua: "Oso-oso apala izan da". Eragilearen aburuz, horrek erakusten du gai horren bueltan ez zegoela "benetako eztabaidarik". Gogoratu du iritzia eman duten hautesleen kopurua %30era iritsi ez dela, eta horrek esan nahi duela emaitza ez dela loteslea Udalarentzat. "Gauzak nola joan diren ikusita, ez dugu duda egiten mezua argi eta garbi entzun duela Udal Gobernuak; aitzakia bat gutxiago du Lasarte-

Herri-galdeketa, grafikoki




Herri-galdeketa 1.258 herritarrek bozkatu dute. TXINTXARRI/FLOURISH

Parte-hartzea Datuak oso apalak izan dira, hautetsontzietara deituta zeuden herritarren (15.965, guztira) %7,88 besterik ez baita animatu iritzia ematera. 1.258 lasarteoriatarrek bozkatu dute apirilaren 25eko herri-galdeketa.



60-70 urte arteko herritarrek izan dira gehien bozkatu dutenak. TXINTXARRI/FLOURISH

Parte-hartzea, adinen eta sexuen arabera Pertsona helduak izan dira gehien bozkatu dutenak: batez ere, 60 eta 70 urte arteko gizon eta emakumeak (bozka guztien %31). 20 eta 30 urtekoen artean apalagoa izan da parte-hartzea: botoen %6.



Lurrazpiko edukiontzia kentzea hautatu dute hautesleek. TXINTXARRI/FLOURISH

Herritarren erantzunak Lurrazpiko edukiontzia kentzearen aldeko iritzia eman dute 702 hauteslek (botoen %55,8), eta mantentzearen aldekoa 552k (%43,9). Pertsona baten botoa zuria izan da, eta beste hirurenak, berriz, baliogabeak.

Oriak hondakinen alorrean duen bene-benetako arazoari behingoz heltzeko. Plataforma herritarren iritziak, honako hau da arazoa: "Donostiarekin eta beste zenbait herrirekin batera, Gipuzkoako birziklatzearen trenaren atze-atzeko bagoian jarraitzen du Lasarte-Oriak". Eragileko kideen esanetan,

"fundamentuz" erabili behar dira herritarren parte hartzeko tresnak: "Guraizeek ebakitzeko balio dute, baina ez edozer gauza; enborrak mozteko, adibidez, artaziak ezin ditugu erabili, alferrik galduko baitira. Nolanahi erabiltzen badira, benetan behar direnean kamustuta egoteko arriskua dago".



Iban Arantzabalek hartu du TOKIKOM Tokiko Hedabideen Bateraguneko lehendakaritza. GOIENA

"Batuta, efikazia gehiagorekin egiten dugu kazetaritza"

IBAN ARANTZABAL TOKIKOM BATERAGUNeko PRESIDENTE BERRIA

Azken lau urteetan Tokikomeko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabali pasa dio lekukoa

Goiena

Egubakoitzean egin zuen Tokikomeko, toki komunikabideen bateraguneak, urteko batzar orokorra, Eibarren. 2020aren balorazioa egin zuten. 2021erako eta aurreragorako asmoak eta helburuak ere izan zituzten hizpide. Batzar hartan gauzatu zen presidente erreleboa ere. Izan ere, azken lau urteetan Tokikomeko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari

nagusi Iban Arantzabali pas zion lekukoa.

Tokikomeko presidente berria zaitugu. Zer pentsatu zenuen aukera planteatu zizutenean eta zer asmorekin hartu duzu?

Animoarekin hartu beharrean zaude kargua, eta halaxe egin dut. Momentu polita da; badago zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua. Mundu aldakor honetan bagabiltza, zelanbait, posizionatzen, eta, alde horretatik, animoekin eta gogotsu nago. Bestalde,

administrazio kontseiluan gutako edozein izan zitekeen presidente, egia esan. Kargua hartzen dut administrazio kontseiluaren eta batzar orokorraren ahobatezkotasunarekin, eta hori garrantzitsua da. Nahi nuke

"GAUR EGUN NEKEZ IKUSTEN DUT GAUDEN TOKIAN EGOTEA TOKI-HEDABIDEOK TOKIKOM EZ BALEGO"

tren berean jarraitzea Tokikomeko bazkide guztiok, eta ahaleginduko gara horretan. **Kargua egoera nahiko aldrebelean hartu duzu: 2020an COVID-19ak hankaz gora jarri zuen mundua eta 2021 honetan ere gauzak ez dira guztiz egonkortu. Tokikom bera ze puntutan dago une honetan?**

Tokikom enpresa sana da, egonkortua, lantalde txiki baina efektibo batekin ari dena lanean. Oso jende ona dauka eta taldegiroa dago. Hori ez da leku guztietan gertatzen. Badauka bere plan estrategikoa, bere misioa zehaztuta eta adostuta. Denon artean adostutakoak dira, eta horrek ere ematen du indarra. Gainera, badaukagu norabidea ere. Alde horretatik, pozik, egia esan. 2020a katramilatsua izan da. Edozein etxetarako izan den legetxe, bada, guretzako ere bai. Tokikom osatzen duten bazkide guztientzako eta, bereziki, hedabideendako.

Tokiko informazioaren kontsumoa izugarri igo zen iaz. Hor daude datuak. Baina, era berean, krisi ekonomikoaren ondorioak, publizitate sarreraren jaitsierak... horrek guztiak ere izan zuen eragina tokiko komunikabideen jardunean. Nola eragin zien 2020ak Tokikom osatzen duten komunikabideei?

Eragin zuzena izan zuen. Batetik, poza eragin zuen. Ze bazen informazioa emateko garai bat, kazetaritza egiteko garai bat, eta horrek balio du baita profesionalendako ere. Ze, jartzen zaitu leku batean, non jendeak ikusi, entzun eta irakurri nahi zaituen. Gure webguneetako bisitak, orokorrean, Tokikomeko guztiak hartuta, %46 igo ziren. Jendea informazioaren gosez zegoen. Ez bakarrik Txinan zer gertatzen zen jakiteko, baizik eta norbere herrian zer gertatzen den jakiteko. Hori eman du Tokikomek: hainbat datuarekin, grafikoekin... eta, gainera, egunero-egunero berrituta, izan aste barru edo izan aste akabera. Eta horrek lagundu du webguneetako bisiten igoeran. Hori da alde gozoa: egiten duzun horri jasotzaileak erantzuna ematen diolako. Baina badauka gazitik ere: hori egitea kostatu zaigu %30 gehiago, batez beste. Kazetaritza gastu handiagoarekin egin dugu. Eta hori pisutsua da. Eskatzen du lan gehiago. Zer ez genuen egiten grabazio bat egiteko! Pandemia horrek, hasieran oso ezezaguna zenak, sortu zuen

demaseko denbora galera lan egiteko orduan. Gainera, gure kasuan, bazegoen beste kontu bat: hedabideok ezinbestekotzat izendatzen gintuzten, premia biziko ondasun. Bagenuen egiteko bat eta badaukagu: informazioa behar bat da, ez eskubidea bakarrik.

Tokiko informazioaren kontsumoa izugarri igo zen iaz. Hor daude datuak. Baina, era berean, krisi ekonomikoaren ondorioak, publizitate sarreraren jaitsierak... horrek guztiak ere izan zuen eragina tokiko komunikabideen jardunean. Nola eragin zien 2020ak Tokikom osatzen duten komunikabideei?

Ezinbestekoa izan da. Tokikom osatzen dugun hedabideetan denetarik dago, eta, denok gauza bera oinarri ezberdinetatik egiten hasiko bagina, askoz gehiago zailduko litzateke bakoitzaren egitekoa. Toki hedabideetako profesionalak egin duten lana ez dakit bikoitza izan den, baina askoz handiagoa izan dela eta malgutasun hori erakutsi dutela bai. Goienan eta beste edozein hedabidetan berdin, izan txikiagoa edo handiagoa.

Tokikomek ekarri du bateratze bat. Pandemiaren datu-bilketarekin azalduta, esaterako: datuak jaso, azkar webguneratu eta konparatu ditugu; herriekin, gure ondoko bailarekin, Hego Euskal Herriarekin, ahal zenean Euskal Herriarekin... eta mapa bat osatu dugu. Gure kasuan, gertuko mapa bat osatzea. Horrek du benetan garrantzia, gertuko datu horrek, baina ez irla bat moduan, Euskal Herria subjektu moduan hartuta. Tokikomek marrazten du Euskal Herria eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketarekin, informazioarekin... hainbat modutara. Gaur egun oso nekez ikusten dut gauden tokian egotea toki hedabideok Tokikom ez balego.

Bakoitza bere aldetik joanda...

Bai, bikoitza kostatuko litzazuke. Debagoienean, Soraluzen, Elgoibarren, Beran, Zumaiian, Durangon... edonon, oinarria bat izateak asko laguntzen digu, eta hori Tokikomei esker lortzen da. Batuta, askoz eta efikazia eta efizientzia handiagoarekin egiten dugu kazetaritza.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

Udalekuak **Ttakun** 2021



mixak

ASTIGARRAGA

(LH3-LH4)

Uztailaren 12-18 *

Uztailaren 18-24 **

Uztailaren 24-30 **

LOIOLA (Azpeitia)

(LH5-LH6)

Uztailaren 2tik 8ra *

ALBENIZ (Araba)

(DBH1)

Uztailaren 20tik 26ra

ASKIZU (Gipuzkoa)

(DBH4)

Uztailaren 26tik 31ra

DBH 2-3 harremanetan jarri:
ktglasarteoria@ttakun.eus | 650. 45 93 54

Udalekuak+Udako Txokoak

*	OSOA	1.hamab.	2.hamab.
9:00etatik	306€	244€	269€
10:00etatik	279€	233€	253€
Jangela	+82€	+35€	+60€

**	OSOA	1.hamab.	2.hamab.
9:00etatik	306€	281€	230€
10:00etatik	279€	263€	222€
Jangela	+82€	+60€	+30€

Ttakuneko bazkideentzat prezio berezia

UDALEKUEN PREZIOA:

Ttakuneko bazkide: 177 €

Ttakuneko ez bazkide: 190 €

IZEN-EMATEA:

maiatzaren 3tik 28ra

Lehentasuna maiatzaren 5era arte (barne):
Gaztekluba eta Kuadrillategiko
erabiltzaileak (%40 asistentziarekin)
eta bazkideen seme-alabak

ONLINE

www.labor.eus/udalekuak2021

ttakun@ttakun.eus
943 37 14 48
Lasarte-Oria



Nerea Eizagirre

Iñigo Altunak (Lasarte-Oria, 1998) txirrindularitzan profesional izan nahi zuen, hori zen bere ametsa. 2019an, ordea, txirrindatit jaistea erabaki zuen: "Ni baino jende hobea zegoela ikusi nuen". Caja Rural Seguros RGA taldeko kide zen eta taldeak berak aukera eman zion talde teknikoan lan egiteko. 2020. urtetik material arduradun, mekaniko zein zuzendari lanak burutzen ditu harrobiko taldean, eta talde profesionalean mekaniko lanetan ere ibili ohi da. Errepidean bizikletarekin istripua izan ostean, aurtengo urtea "zuri" pasako du, baina etxetik bada ere, Caja Rural taldearen nondik norakoak jarraitzen ditu.

Denboraldia ongi hasi du Caja Rural taldeko filialak...

Bai. Denboraldia hasi dugu eta errepidean, zein mendi bizikletan garaipenak lortu ditugu. Bi hilabete daramatzagu eta ongi hasi dugu urtea. Eta uste dut urte polita izango dugula aurretik.

Marc Brustenga ari da nabarmetzen guztien artean.

Bai, afizionatu mailan, nik uste aurtun erreferentzietako bat izango dela. Hiru urte egin ditu Frantzia, lehen urtea du taldean, baina lehenagotik egon gara bere atzetik. Jende asko dator kigu esanez 'formatuta hartu duzue', baina bere ibilbidea jarraitu dugu duela urte batzuetatik. Eta nire ustez hurrengo profesionala bera izango da.

23 urtez azpiko Italiako Giroko gonbidapena jaso du berriro taldeak. Iaz lehenengoz izan zineten bertan. Nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia oso polita da. Iaz berria izan zen denentzat. Bai talde teknikoa, baita txirrindulariak ere joaten ginen lehen aldia zen. Eta hasiberri bezala harrapatu gintuen.

Horrelako lasterketetan ikusten duzu benetako maila zein den.

Horretaz gain, Bulgariako itzulian ere izan ginen. Nahiz eta filiala izan, han profesionalekin lehiatu ginen. **Eta aurtengo Girora begira, nola ikusten duzu taldea?**

Aurtun ez dugu talde eskalatzailea. Italiako giroa baino, beste motatako lasterketak batzuk datozkigu ondo.

Hala ere, nire ustez hobeto prestatuta joango gara, bai baliabide aldetik, baita prestaketa aldetik ere.

"Uste dut taldeak urte polita izango duela aurretik"

IÑIGO ALTUNA CAJA RURAL TALDEKO FILIALEKO TALDE TEKNIKOKO KIDEA

Denboraldi hasiera ona izan du Caja Rural Seguros RGAko harrobi taldeak. Aurtun, Espainian zein Europan zehar, hainbat lasterketatan parte hartuko du taldeak



Iñigo Altuna Caja Rural Seguros RGA taldean lanean ari da. TXINTXARRI

Giroaz aparte zeintzuk dira aurtengo hitzordu garrantzitsuak?

Aosta bailarako itzulira, Ronde de L'Isard eta Belgikako Ardenetako klasikora ere gonbidatu gaituzte. Hirurak lasterketa garrantzitsuak dira. Nahiz eta emaitzak ez diren onak izango, zeren maila handia baitago, txirrindularien formakuntzan garrantzitsuak izango dira.

Hemen, Espainiako Kopa da gure helburuetako bat eta Espainiako Txapelketa ere bai. Egutegi betea dugula uste dut. Lana pilatzen ari zaigu.

Hala ere, helburua hemen gauzak ongi egin eta hemendik kanpo ikastea da.

Profesional taldeak ere Espainiako Itzulirako gonbidapena jaso du.

Bai. Euskal Herriko Itzulian izan gara eta Espainiako

itzulirako gonbidapena jaso dugu. Helburua bietan gauzak ongi egin eta hurrengo urterako gonbidapena lortzea da.

Zail da horrelako lasterketetan parte hartzea?

Espainia-mailan talde gehiago ari dira ateratzen eta gonbidapenak garesti daude.

World Tourrean hemezortzi talde bakarrik daude eta beste taldeak gonbidapen bitartez sartu behar dira lasterketetara. Beraz, errepidean gauzak ongi egin, zertarako gai garen erakutsi eta gonbidapenen zain egotea besterik ez zaigu geratzen.

2020. urtea ongi amaitu zenuten, nahiz eta urte arraroa izan.

Bai, urtea zaila izan zen. Hilabete bat egin genuen lehiatzen eta guztia bertan behera geratu zen.

Hor hasi ginen oraindik martxan dagoen formula bat erabiltzen: asteko Zoom bilerak talde osoarekin. Eta egia esan oso ongi ari da funtzionatzen. Nahiz eta batera ezin egon, taldea egin eta batzeko balio digu.

Astero egiten hasi ginen, orduan, gehienbat dudak argitzeko egiten genuen. Guztiak urduri zeuden. Ez zegoen berririk eta zeuden berriak oso txarrak ziren.

Eta horrela, gaizki ez banago, ekainaren amaieran Zamoran

izan genuen lehen lasterketa. Itzuli bat zen eta irabazi genuen. Beraz, itzulera ongi hasi genuen. **Beraz, itxialdiak ez zuen ondorioz izan taldean.**

Ez dakit ongi edo gaizki. Baina guri konfinamenduak mesede egin zigula esan daiteke. Ongi etorri zaigu behintzat talde bezala gauzei buelta bat emateko.

Hala ere, COVID-19aren aurkako neurriek eragina izango dute, ez?

Bai. Lasterketa asko ari dira bertan behera geratzen, zeren eta antolakuntzako boluntarioak adineko jendea baitira eta beldurra dute. Pena da.

Taldeari dagokionez, aurtun ezin izan dugu ohikoa den kontzentrazioa egin. Neguro bi asteko kontzentrazioa egiten dugu; aurtun izan da lehen urtea ezin izan duguna egin. Beraz, asteroko Zoom bilera horiek kontzentrazioa izan direla esan daiteke.

Horrez gain, afizionatu-mailan, tenperatura-kontrolak egiten dira lasterketetan eta guk taldean antigenoen testak egiten ditugu astero. Kontrola izan eta zerbait gertatzen bada, lehenbailehen mozteko.

Profesional mailan, lasterketa bat baino lehenago bi PCR egin behar ditugu. Bat, astebete lehenago, eta bestea, hiru egun lehenago.

Taldeko medikua gure gainean dago eta korrikarietako edozein sintoma dela ere, debekatua dute lasterketara joatea.

Eurek dira lehiaketetan parte hartu nahi dutenak eta zentzuz jokatzeko dutela esan daiteke. Deneke nahi dute lehiatu eta ez dute nahi iazkoa berriro gertatzea.

Zorrotz daramatzazue neurriak, orduan?

Gaur egun, garrantzitsuena osasuna da. Saiatzen gara dena ahal den ongien egiten, baina azkenean gertuko kontaktuak kontrolatzea zaila da.

Gero, gainera, 200 pertsonako pelotoi batera zoaz eta zure taldeko kideak nola dauden badakizu, baina gainerakoak ez. Orduan, hor bakoitzaren ardura dago jokoan.

Egoera normalizatu dela dirudi, hala ere, neurri guztiak gutxi dira gertatzen ari dena kontrolatzeko.

Puertas eta Pozuelo, finaletik pauso batera

Ohorezko Mailarako igoera jokatzen ari da Jon Ander Puertas herritarra kapitain duen Pozuelo taldea; Almeria garaitu du nagusitasunez final-laurdenean eta asteburu honetan, Gernika RTren aurka neurtuko ditu indarrak finalera iristeko

Txintxarri

Jon Ander Puertas herritarra Ohorezko Mailarako igoera-fasea jokatzen ari da Madrilgo CRC Pozuelo taldean. Apirilaren 25ean, Union Rugby Almeria Playcar taldearen aurka jokatu zuen final-laurdena eta Madrilgo taldea nagusi izan zen eta 36-3 irabazi zuen.

CRC Pozuelo taldea erasoan hasi zen lehen minututik. Almeria bere zelaian sartu zuen eta defentsan lan handia egin zuen bertatik atera ez zedin.

Lehen zatia aurrera joan ahala, atera gerturatu zen Madrilgo taldea eta hamabosgarren minutuan, mele baten ostean, iritsi zen lehen entsegua. Transformazioa ere lortu zuten, eta 7-0 jarri zen aurretik CRC Pozuelo.

Almeriak ez zuen amore eman eta 20. minutuan, zigor-ostiko batekin tartea murriztu zuen, 7-3.

Zelaiardian borroka latza izan zuten bi taldeek, baina atera gerturatu eta puntuak lortu zituen bakarra Jon Ander Puertas taldea izan zen.

Bi zigor-ostiko, zigor-entsegu bat eta entsegu baten ostean, Madrilgo taldearen aldeko 20 eta 3ko markagailuarekin joan ziren atsedendira.



Jon Ander Puertas (baloiarekin), final laurdenetako partidako irudian. @CURU_RUGBY

Bigarren zatian ere Madrilgo taldeak estrategia berdina jarraitu zuen. Defentsan irmo egon zen eta erasoan aukerak ongi baliatu zituen. Ondorioz, bi entsegu egin eta bi zigor-ostiko transformatu zituzten. Azken markagailua 36-3 izan zen.

CRC Pozueloko komunikazio sailari eskainitako elkarrizketan, Jon Ander Puertas herritarra pozarren zegoen final-laurdenean taldeak egindako lanarekin. Hurrengo partidaren dinamika berarekin jarraitu behar dutela nabarmendu eta mailaz maila irabazteko espero duela adierazi zuen.

Garaipenari esker, Ohorezko Mailarako igoerako bidean aurrera egingo du CRC Pozuelok.

Gernika finalaurrean

Finalerdian arerio zaila izango du aurrez aurre Madrilgo taldeak, Gernika. Hitzordua igande eguerdian da Gernikako Ubitarte zelaian.

Talde gernikarra garaituz gero, pauso bakar bat gehiago eman beharko du Puertas taldeak Ohorezko Mailara iristeko. Finalean, La Vila edo Hernaniren arteko finalerdiko irabazlea izango du aurkari.



Kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu duten bost judokak. LOKE JUDO

Kadete-mailako judoek, hiru domina Gipuzkoako Txapelketan

Urteko lehen txapelketan, LOKE judo ataleko gazteek podiumeko hirugarren mailara igotzea lortu zuten

Txintxarri

Pixkanaka-pixkanaka maila ezberdinetako judokak lehiara gehitzen ari dira. Oraingoan, kadete mailako gazteen txanda izan da eta Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute, Errenterian.

Pandemiaren eraginez, 2021. urteko maila horretako lehen txapelketa izan da eta irailetik hona landu dutena erakusteko aukera izan dute LOKEko bost judoka gazteek. Bostetik hiruk podiumeko hirugarren mailara igotzea lortu dute, gainera. Mario Herrero, Ekhi de la Cruz eta Oier Guisado izan ziren brontzezko domina jantzi zutenak.

Hirurek lan ederra egin zuten Gorka Aristegi judo ataleko arduradunak azaldu duenez.

60 kilo azpiko mailako lehiaren parte hartu zuen Mario Herrerok. Gazteak hiru borroka egin behar izan zituen domina irabazteko.

Ekhi de La Cruz 73 kilo azpiko mailan lehiatu zen. Lehen borrokaldi txandaren ostean, hiruko berdinketa egon zen maila horretan. Ondorioz, beste txanda bat egin behar izan zuten eta horretan, hirugarren geratu zen herriko gaztea.

Oier Guisadok, berriz, 90 kilo azpiko mailan lortu zuen brontzezko domina. Borroketan min hartu arren, gazteak ongi erantzun zuen eta hirugarren postuan egotea lortu zuen.

Lehen urtea

Julen Ugarte eta Unai Guisado gazteek ere parte hartu zuten txapelketan. Aristegik nabarmendu duenez, "ez zuten zorterik izan. Lehiaren lehen urteko kadeteak izatea nabaritu zuten".

Emaitzak emaitza, LOKE Judoko arduraduna pozarren dago kadete guztiek egindako lanarekin.

Ostadar SKTko boleibol taldeak, denboraldiko bigarren porrota

Kotskas donostiarraren aurka 3-0 galdu du Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak

Txintxarri

Lehian hilabeteko atsedena izan ostean, Ostadar Boleibol taldea kantsara itzuli zen apirilaren 24an. Martxoan hasitako garaipenaren bidea jarraitzeko asmoarekin aurkeztu zen Asier

Acuriolaren taldea Mons kiroldagiko neurketara.

Kostasek, ordea, ez zien lana erraztu. Nahiz eta Ostadar Boleibol taldea saiatu, ez zen nahikoa izan Donostiako taldea garaitzeko eta 3-0ko (25-18; 25-12;

25-19) markagailuarekin amaitu zen partida.

Porrotak ez ditu Ostadar boleibol taldeko kideak atsekabetu, partidetan eta entrenamenduetan akatsetatik ikasten jarraitu behar dutela argi baitute.

Asteburu honetan, talde urdinbeltzak ez du jardunaldirik izango. Hurrengoan berriz, maiatzaren 8ko asteburuan, Fortuna B taldea izango du arerio Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak.



Ostadar Boleibol taldea lehiaren artiboko irudian. TXINTXARRI

Artetxe, gutxigatik, Ekialdeko finaleratik kanpo

Intza pilota elkarteko seniorrak lau eta erdiko txapelketako finalerdia 22-21 galdu du Hernaniko Salaberriaren aurka. Asteburu honetan, Udaberri Txapelketari hasiera emango diote 1. mailako senior eta 2. mailako kadete bikoteek

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko Jon Pello Artetxeri eskuetatik ihes egin zion lau eta erdiko txapelketako Ekialdeko finalak. Hernaniko Salaberria izan zuen aurrez aurre. Partida ona jokatu zuen herritarrak. Momentu oro aurretik joan zen arren, ez zuen partida amaitzen jakin eta azkenean, 22-21 galdu zuen.

Partida hasi baino lehen Artetxek astean zehar izandako sorbaldako minagatik kezkatuta egon arren, ongi berotu eta partidari inongo minik gabe ekin zion.

Lehen tantoetan bi jokalarien urduritasuna nabaria zen. Artetxek, ordea, hobetu kudeatu zituen nerbioak eta laster lortu zuen aurrea hartzea.

Pixkanaka jokoan nagusitu eta tarte irekitzen joan zen herritarra. Markagailuan 16-10ekoa zegoela bi tanto gogor jokatu zituzten. Salaberria ongi suspertu zen; Artetxe, ordea, akatsak egiten hasi zen.

18-21era iritsi zen markagailua. Tamalez, Intzako pilotariak garaipena eskuan zuenean, ez zen bere azken sakearekin partida biribiltzera iritsi.

Salaberriak, berriz, gerturatzen zihoala ikusirik, konfiantza hartu zuen. Partidari buelta eman eta



Jon Pello Artetxe (ezkerrean) ezin izan da Ekialdeko finalera sailkatu. TXINTXARRI

Ekialdeko finalerako txartela lortu zuen Hernaniko pilotariak.

Udaberri txapelketa

Atsedetik ez du izango Artetxek, ordea. Lau eta erdiko txapelketari agur esan eta Udaberri Txapelketa jokatzeko hasiko da. Oraingoan bikotekako lehiari egin beharko dio aurre, Mikel Elola lagun duela.

Zumaiaren aurka jokatu dute igandean lehen jardunaldia Michelin kirol-guneko pilotalekuan.

Bestalde, 2. mailako kadete-mailako bikoteak ere parte hartuko du txapelketa honetan. Intzako bikoteak Ilunpe izango du aurkari Azeptian.

Pilota profesionalean, berriz, Baiko pilota-entresak maiatzaren 16an hasiko den Buruz Buruko EPEL 2021 txapelketan parte hartuko duten pilotarien izenak iragarri ditu.

Atarikoak jokatu behar

Enpresak sei pilotari aurkeztuko ditu txapelketara. Bost ziurrak dira: Jaka, Urrutikoetxea, Agirre, Bengoetxea VI.a eta Peña II.a; seigarrena atariko batean erabakiko da.

Maiatzaren 7an, Arteaga II herritarrak eta Artolak neurtuko dituzte indarrak, Zallan, azken postua lortzeko.

Herri-lasterketa gutxi badaude ere, herritarrak erne eta tinko

Apirilaren 25ean, San Markoko Igoera proba jokatu da. Bestalde, LOTMEk Gorbeira irteera antolatu du

Txintxarri

COVID-19aren pandemia hasi zenetik, herri- eta mendilasterketetako korrikalariak ez dute aukera askorik izan lehia bizian egoteko. Apirilaren 25ekoa izan zen horietako bat: San Markoko Igoera proba antolatu zuen Erreterria Atletismo Taldeak.

Segurtasun- eta osasun- neurri guztiak jarraitu zituzten proba aurrera eramanez ahal izateko. Besteak beste, maskara irteeran eta helmugan jantzi behar zuten parte-hartzaileek, proban zehar maskara kentzea zuten eta irteera mailakatua izan zen, sei kideetako taldeetan.

Horrez gain, proban 13,151 kilometrotako ibilbideari eta 493 metroko desnibel metatuari aurre egin behar izan zioten parte-hartzaileek.

148 korrikalari atera ziren Beraungo estadiotik eta 145ek amaitu zuten proba. Horien artean, hainbat lasarteoriatar izan ziren, hala nola, Mikel Izagirre, 1:13:09; Koldo Lucero, 1:13:37; Eñaut Azkarate, 1:17:05; Peio Fadrique, 1:21:19 edo Enaitz Ibarburu, 1:25:01.

Gorbeira igoera

Bestalde, Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek Gorbeira irteera antolatu dute maiatzaren 30ean, igandearekin.

12 kilometroko ibilbideari aurre egingo da oinez, eta 1.000 metroko garaiera positiboa du. Taldeak jakitera



Enaitz Ibarburu. OARSOALDEAKO HITZA

eman duenez, ibilbide erraza da eta ez du inongo zailtasunik. Jaisterakoan, inguruko jatetxe batean bazkalduko dute.

Izen-ematea euren sare sozialetan zehaztu duten lotura batean egin daiteke eta maiatzaren 23an itxiko da epea, igandez. Mendi-taldeko bazkideek 15 euro ordainduko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 30 euro. Prezioaren barne eguneko aseguru, autobusa eta bazkaria daude.

Egoera dela-eta, jarduera bertan behera geratuko balitz, LOTMEK dirua itzuliko duela jakitera eman du.

Zalantzarik izanez gero, 623 03 03 73 WhatsApp zenbakira edo direccion@lasarteoriatrail.com helbide elektronikora mezua bidali behar dute interesatuek.

Urteko lehen irteera egin du Ipar Martxako taldeak

Urtebeteko etenaren ostean, Txokoaldera joan eta etorria egin du 28 kidek osatutako taldeak

Txintxarri

Hiru aste igaro dira Ostadar SKTko Ipar Martxako kideek jardunari berriro ekin ziotenetik. Astero-astero, asteazken eta ostegunetan hitzorduak dituzte taldeko kideek arduradunekin,

eta Lasarte-Oria inguruetan entrenamendu saioak egiten dituzte.

Horiez gain, bestelako jarduerak ere egin ohi dituzte; ibilbideak edo ikastaroak, esate baterako. Urtebete baino gehiago

da ezin izan dutela ez bata, ez bestea egin. Apirilaren 24an, larunbatarekin, ordea, 2021. urteko lehen irteera antolatu zuten.


Lasarte-Oriako Okendo plazan 28 bat lagun bildu eta pixkanaka Txokoaldera joan eta etorria egin zuten.

Ostadar Ipar Martxako arduradunak pozarren daude, berriro ere, horrelako ekintzak egin ahal izategatik. Gainera, irteera "zoragarria" izan zela ere adierazi dute.



Ipar Martxako kideak Txokoaldera egin dute lehen irteera. OSTADAR IPAR MARTXA

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Aiora
Kaixo guapa!!! Ondo pasa zure egunean!!! Txokolatezko muxuak etxekoan partetik.



Maialen
Zorionak!! Ondo ondo pasa zure urtebetetzean! Hamasei urte preziosa!!! Besarkada handi bat bihotzez! Leire, aiton-amona eta familiaren partetik.



Xabat
Zorionak bihotza!! Muxu pila zuren bigarrena urtebetetzean etxeko guztion partez. Maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Zure erabiltzailearekin sartu.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.
- Ez ahaztu irudia mezuan txertatzea.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 30



Larunbata, 1



Igandea, 2



Astelehena, 3



Asteartea, 4



Asteazkena, 5



Osteguna, 6



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 30	ACHA-ORBEA	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 1	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 2	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 3	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 4	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 5	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 6	DE MIGUEL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

SUDOKUA

			5		1		
	5		1		8		6
	1				2		5
	4		3		5		2 8
				8		5	
7		5					
				1		8 9	
9		1	8				5
5	2	8	9				4 1

OHARRA

Jaiotzen berri eman

Zure haur jaioberriaren izena Txintxarri aldizkarian *Jaiotzak* atalean argitaratzea nahi baduzu, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Biyak-Bat elkarteko taberna eta gizonezko ile-apaindegia irekiko dira

Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek TXINTXARRI-ri jakinarazi diotenez, taberna maiatzaren 3an, 9:00etan irekiko da.

Elkarteko kideek nabarmendu dutenez, COVID-19aren aurka indarrean dauden neurriak jarraituko dira.

Bestetik, gizonezkoen ile-apaindegia ireki dela ere gogorazten dute.

Ordutegia 9:00etatik 14:30era izango da. Beharrezkoa izango da hitzordua aurrez hartzea, 688 74 97 36 telefonoan.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia, 648 20 08 11.

LANA

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko. Orduka edo externa gisa lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 663 49 98 41.

Adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatuko nuke. Orduka edo externo gisa lan egin nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire burua. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketetan... esperientzia

handikoa eta profesionala garbiketetan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka persona adinduak zaindu edo tabernetako garbiketetan lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketetan lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka

edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketetan lanak

egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaleetan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA




ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Bizikletaren oinarriko konponketa eta mantenu ikastaroko bigarren saioa egingo da. Ttakun kultur elkarteak antolatuta.

Oriarte BHI Landaberri eraikina, 17:30etik 20:00etara.

IGANDEA 2

LASARTE-ORIA Azkorterera bisita

Azkorteko erromeria antolatu ezin izan arren, Ttakun Kultur Elkarteak herritarrek gonbidatzen ditu ermitara

gerturatu eta bisita egitera.

Azkorteko ermita, 10:30etik 12:30era.

ASTEARTEA 4

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Umeentzako merienda hitzaldia eskainiko du Nagore Elola nutrizionistak. 0 eta 2 urte arteko haurren gurasoei zuzendua. Gurasolandia programako ekimena. Izena emateko kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 zenbakira deitu.

Antonio Mercero gunea, 17:30etik 19:30era.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Crock of Gold (JBGA)

Ostirala: 18:45.

Tess eta ni

Igandea: 17:00.



LABURPENA

Tess eta ni

Zuzendaria: Steven Wouterlood. **Gidoia:** Laura van Dijk. **Eleberria:** Anna Woltz. **Argazkia:** Sal Kroonenberg. **Musika:** Franziska Henke. **Herr.:** Herbehereak (2019). **Antzezleak:** Jennifer Hoffman, Tjebbo Gerritsma, Hans Dagelet, Guido Pollemans, Julian Ras, Terence Schreurs, Johannes Kienast, Josephine Arendsen, Sonny Coops Van Utteren, Suzan Boogaardt. **Iraupena:** 82 minutu.

Familiaren balioa

Haurren zinema atalean, Anna Woltz idazlearen izenburu bereko eleberrian oinarrituta dagoen *Tess eta Ni* filma ikusiko da. Filmak sari eta aipamen ugari lortu ditu nazioarteko zinemaldietan.

Sam hamaika urteko mutiko bat da eta Holandako uharte batera doa oporretan. Lehen egunean bere anaiak hanka hautsiko du eta horri esker, Tess izeneko neskatu bat ezagutuko du. Lagun berria energiak beteta dago eta abenturak bizitzera bultzatuko du. Tessek Samen jakin-mina deituko duen sekretu bat ezkututzen du.

Tess eta Ni filmak adiskidetasunaren eta familiaren balioa erakusten du Sam eta Tessen istorioaren bidez. Filma euskaraz eskainiko da.

Musika Astea, maiatza hasteko

Apirilaren 28an egin dute Musika Astearen aurkezpena, asteazkenarekin, Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan, eta datorren hilabeteari hasiera emateko prestatu dituzten ekitaldien berri eman dute ekitaldian parte hartuko duten taldeetako ordezkariak eta udal-ordezkariak.

Giuseppe Verdiren *Macbeth* opera (bertsio digitala) izango da maiatzeko Musika Asteako lehen ekitaldia. Hilaren 5ean izango da, 18:00etan, Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Horri jarraiki, maiatzaren 7an 19:00etan, Oiasso Kameratak emanaldia eskainiko du, auditorioan. Brigadatarren komentuan eskaini behar zuten emanaldia, Musika Topaketa zikloaren baitan, baina COVID-19ak eragindako egoera medio, bertan behera geratu zen eta orain, Musika Astearen barruan txertatu dute.

Hamabost harizko instrumentu-jotzaile arituko dira taulagainean, horien artean herritar bat ere bai: Tomas Ruti biolin-jotzaile. Mainer Aizpurua Irungo kameratako lehendakari eta biolin-jotzaileak azaldu du tango aireak izango dituen bidaia batean murgilduko direla ikus-entzuleak. Marina Beheretche biolin-jotzaile solistaren parte hartzeari egin dio azpimarra.

Brian Balmages, Arturo Cardelus, Astor Piazzolla, Isaac Albéniz, Alberto Williams, Carlos Guastavino, Aldemaro Romero eta Sting-The police konpositoreen musika interpretatuko dutela iragarri dute.

Erromatar garaian Oiasso izena hartzen zuten hari-orkestrek eta hortik dator kio Irungoari ere bere izena. Kamerataren ibilera 2014an hasi zen, Raffaella Acella zuzendari artistikoaren eskutik. Bi urte beranduago, 2016an, Tomas Ruti Vilar lasarteoriatarrek hartu zuen ardura hori, soinu-kalitatearen helburua aurrera eramanez.

Herrialde ezberdinetan oinarritutako esperientzia musikalak eskaintzen saiatzen da kamerata, garai bakoitzeko konpositore garrantzitsuenak ezagutzera emanaz.

Opera ere bai

Maiatzaren 8an, larunbata, Sasibill elkarte lirikoaren eskutik Marina opera saioa izango da kultur etxeko auditorioan. Hori aurkeztu dute Daniel Miguel eta Josean Garcia elkarteak lehendakariak eta zuzendari artistikoak, hurrenez hurren. Ikus-entzuleak Lloret de Marreko herri arrantzale batean kokatuko dituela iragarri dute elkarteko ordezkariak.

Horrekin batera, operan parte hartuko duten pertsonaia ere aurkeztu dituzte. Ximena Agurto arituko da Marinaren paperean, eta berarekin batera Manuel de Diego, Antonio Torres, Armando del Hoyo, Estibalitz Arroyo, Julen Garcia eta Daro Maya. Horiez gain, Sasibill abesbatzak arrantzaleak interpretatuko ditu, Sasibill

KULTURA BABESTU ETA EKITALDIK KONTSUMITU DITZATEN DEI EGINDIETE LASARTEORIATARRI



Oiasso Kameratako eta Sasibill elkarte liriko ordezkariak, udal ordezkariekin batera. TXINTXARRI

orquestra ere oholta gainean izango da. Arkaitz Mendoza da musika zuzendaria eta Josean Garcia, berriz, zuzendari artistikoa.

Opera hori hasiera batean Zarzuela gisa jaiotako zela azaldu dute Miguel eta Garciak. Azaldu dute baita ere Espainiako operan ikus-entzuleen harrera onena duena dela.

Thierry Biscaryren 'Muda'

Igandean, maiatzaren 9an, berriz, Thierry Biscary musikariaren emanaldiaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek. *Muda* izeneko bere azken lana ekarriko du kultur etxeko auditorioko oholtzara. Kalakan taldeetik aldendu zenetik, bakarkako ibilbideari ekin eta bide horretan osatu duen hirugarren lana da,

eta Uxue Alberdi, Jon Benito, Itxaro Borda, Xabier Euzkitze eta Jon Maiaren hitzak erabili ditu abestiak ehuntzeko. Ahotsa jarriko die Biscaryk kantuei, eta musika instrumentu ezberdinak jotzen dituzten musikariek batera oholtzaratuko da.

Kultura babesteko deia

Agustin Valdivia alkateak eta Maite Iglesias Kultura zinegotziak adierazi dute COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, kultura izan dela sektore kaltetuenetako bat, hortaz, kultura-ekitaldiak kontsumitzera deitu dituzte herritarrek. Azpimarratu dute segurtasun neurri guztiak kontuan hartzen dituztela ekitaldi guztiek.

2mó

betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Eugenia Silva

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiopticas.com



ARREGUI

600 857 586

www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



Udaberriaz gozatzeko produktu paregabeak!

IZOZKI-MAKINA





AIRE-FRIJIGAILUA

**PLANTXA GRILL
ELEKTRIKOA**





**BARBAKOA
ELEKTRIKOA**

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

Ate Irekiak

Maiatzak 12

Erdi Maila: 16:00 - 17:30
Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 15

Erdi Maila: 10:00 - 11:30
Goi Maila: 11:30 - 13:00

943 364600

adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

HARTU
HITZORDUA!!!

MOTORRAREN GIDA

txintxarri

*Esku ezin hobean eta
Lasarte-Orian!*

Datorren ostiralean hasiko gara publikatzen
paperean urrira bitarte, hilabetean behin!

GIDAN PARTE HARTZEKO: publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66